

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua edonori zuzendua dago, hau da, edozein adin, sexu edota interes ezberdinak dituzten pertsoneri. Kirola da guk eskaintzen dugun zerbitzua, hori dela eta, edozeinek egin dezake eta hark ekar ditzakeen onurataz disfruta dezake edonork.

Gure eremuan edo jabetzan sartu nahi duen edonork 15€-ko sarrera ordaindu beharko du, hau da, edonor etorri daiteke merkea baita. Norberaren gastu-ahalmenak ez du zergatik altua izan behar, horregatik era ezberdinetako pertsonak topatuko ditugula argi dago, dirudunak, kirolariak, alferrak...

Gainera, kirol hau ezaguna egin nahi duten inbertsoreei bideratuta dago baita ere, hau da, dirua jarri dezakete kapital moduan gure baliabideak handitzeko eta ahalik eta zerbitzu onena eman dezagun. Era honetan, jende gehiagok nahi izango du kirol berri hau jokatu eta ezagutu, gure enpresa geroz eta handiagoa bilakatuz.

Azkenik, gure eremuko eskolei baita ere gure zerbitzua eskaintzen diegu, kirolak dituen ezaugarriak oso egokiak dira gazteentzat eta jostagarria izan daitekeela uste dugu. Horrela, etorkizunean, kirol hau gustoko izan duten ikasleek kirola egiten jarraituko dute, gure enpresaren biziraupena ziurtatuz.